

# Aldizkari gaztea zientzia astintzeko

Euskal Herriko Unibertsitateak bultzatu ditu *Irrika* aldizkaria eta *irrika.net* webgunea. Erronka bikoitza izango du: gazteak irakurketara hurbiltzea, eta zientziaz, jakintzaz oro har, irakurtzera ohitzea.

**ONINTZA IRURETA**  
Argazkia: Karlos Corbella

**GAZTEAK ERAKARRI NAHI DITU** Euskal Herriko Unibertsitateak, zientziara, jakintzara. Badu ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat) bildumaren ardura lehendik ere unibertsitate horrek. Asmoa edozein irakurle, edozein adinetakoa, zientzia, edo hobeto esanda, orokorrean jakintzara gerturaztea da. Intentzio horrekin argitaratu dituzte hainbat liburu ZIO bilduman.

Irakurle gaztetxoentzat ordea, berarizko produktua plazaratzea zuten

gogoan. 14 eta 18 urte artekoentzat, alegia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken bi urteotako ikasleentzat eta Batxilergoko ikasleentzat prestatu dituzte *Irrika* aldizkaria eta *irrika.net* webgunea. EHU da sustatzaile eta papereko lanaren zein sarekoaren ekoizpenaren ardura hartu duena Elhuyar Fundazioa. Badute eskarmentua Elhuyar Fundaziokoek bai jakintzaren alorra lantzen –*Elhuyar* aldizkaria, esate baterako– eta baita gaztetxoekin ere –gaztetxoentzako zientzia dibulgaziorako *Zer nola* izeneko internet ataria dute–. Erronka ez da nolana hikoia, gazteak paperera eta irakurtzera erakarri behar baitira. Horregatik, Aitziber Lasa *Irrika* aldizkari zuzendariak esan digunez, eduki laburrak eta probokatzailak lantzeraz jo dute.

## Zientzialariak lurtarrak dira

Aldizkari edukiak, batetik, kolaboratzaileek landuko dituzte eta bestetik, Elhuyar Fundazioko kazetari eta zientzialariek. Kolaboratzaile gisa, lehenengo zenbakian Xabier Murelagak, Agurtzane Ormatzak eta Arantxa Txintxurretak hartu dute parte. Gainerakoan, edukiak kazetariak eta

zientzialariek idatzi dituzte eta Lasak zehaztu digunez, erredakzio taldeko gehienak zientzialariak dira, alegia, biologoak, geologoak, ingeniariak, elikagaien alorreko adituak, albatariak...

Zati txikiz, eduki laburrez osatutako puzzlea da *Irrika*, atal asko ditu eta horietako bakoitzak du helbururen bat. Dena dela, gai orokor bat hartu dute jorrazteko lehenengo zenbaki honetarako: burmuina. Ataletan entresaka egiten hasita bata *Serendipity* da. Orrialde horretan, zientzialariek zerbaiten bila ibili eta ustekabeen bestelako zerbait are interesgarriagoa aurkitu duteneko adibideak kontatuko dituzte. *Oro ez da urre* atalean berriz, zientzialariaren alde humanoa azaltzen saiatuko dira, beraiei buruzko pasadizoak, bitxikeriak edo zurrumurruak jasoz.

Euskal Autonomia  
Erkidegoan, DBHko azken  
bi urteotako eta  
Batxilergoko ikasle guztiek  
jasoko dute *Irrika* ale bana,  
63.000 guztira

www.laiaerretegia.com

laia  
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia  
Tel.: 943 646 309  
info@laiaerretegia.com



*Irrika* aldizkariko erredakzio batzordea. Ezkerretik eskuinera aurrean: Lorea Arakistain, Aitziber Lasa (zuzendaria), Danel Solabarrieta eta Maria Gil. Atzean: Lucía Álvarez, Ana Galarraga (erredakzioburua), Eider Carton eta Irati Kortabitarte.

### irrika.net

Hilabete baino gehiago da [www.irrika.net](http://www.irrika.net) webgunea sarean dagoela. Aldizkariko eduki guztiak hor dira, den-dena euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eta pdf formatuan eskuratzeko moduan. Aldizkariako gain ordea, eduki berriak doaz gehitzen. Albisteak, jakingariak, agenda... eskura jarri eta gazteek elkartrukerako txoko bezala erabil dezaten nahi dute atariaren ardura duten Elhuyar Fundaziokoek.

Gazteak zirikatzeke asmoz dagoeneko bideo lehiaketa antolatu dute, *Argi ibili eta burua erabili* izenburupean. Maiatzaren 31 baino lehen entregatu beharko dituzte gazteek bideoak eta sari-dunak ordenagailu ultraeramangarria lortuko du.



batekoak direnik, baizik eta jende arrunta direla, haiek ere hanka sartzen dutela, batzuetan aurkikuntzak ezustean egiten dituztela... Aitziber Lasa *Irrikako* zuzendariak dioen moduan, gazteak ere zientzialari izan daitezkeela.

Beste ataletako bat *Abroad* da eta kanpora ikastera joaten diren ikasleen berri ematen da bertan. *Zertan bertan* atalean Euskal Herrian egindako proiektuak, aurkikuntzak edo ikerketek dute tokia. *Fokua* izena du beste atal bitxi batek. Betiko txoko edo gauzei beste begi batzuekin begiratzea da atal horren asmoa. Lehenengo zenbaki honetan, adibidez, Bilbo geologikoa aurkeztu digute. Xabier Murelaga geologoak Bilboko Moyua enparantzako fosilak erakutsi ditu, besteak beste.

### 66.000 ale banatzeko

Euskal Autonomia Erkidegoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken bi urteotako eta Batxilergoko ikasle guztiak jasoko dute

*Irrika* ale bana, 63.000 ale guztira. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila arduratuko da banaketaz. Ez dute aitzakiarik izango gazteek, eskura eta doan jasoko dute, oraingoz urtean hirutan. Aldizkariaren ehuneko 80a euskaraz dago eta gainerakoa gaztelaniaz eta ingelesez. Agerkariaren diseinua eragin.com enpresak egin du. *Irrikako* zuzendari Lasak azaldu digunez, estetika infantiletik zein konbentzionaletik urrundu nahi izan dute eta gustura geratu dira eragin.com enpresak eskainitako emaitzarekin.

Azken hitza gazteena da, noski. Laster jakingo dute produktua egi-leek zein sustatzaileek irakurleari nolako irrika sortu dion. ■

Era honetako edukiekin gazteei zientzialariak gertukoago egitea lortu nahi da. Hau da, gazteek ez dezatela uste zientzialariak beste planeta

Babeslea: Bergarako Udala